

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Proiektu honek Donostian kokatuko den gimnasio eredu berritzaile bat proposatzen du, jarduera fisikoa egiteko orduan pertsona askok izaten duten motibazio eta jarraipen faltari irtenbidea emateko. Ohikoa da jendeak gimnasio batean izena ematea, baina denborarekin uztea, ez duelako espero zuen emaitzarik lortzen edo benetan erabiltzen ez duen zerbitzu batengatik ordaintzen ari dela sentitzen duelako.

Egoera horri aurre egiteko, gure gimnasioak prezio sistema berritzaile eta progresiboa aplikatzen du: erabiltzaileak zenbat eta maizago entrenatu, orduan eta merkeagoa izango da bere kuota. Sistema honek ohitura osasuntsuak sendotzea ahalbidetzen du, erabiltzaileen motibazioa handitzen du eta jarraikortasuna benetan saritzen du. Gainera, eredu hau erraza, ulerterraza eta malgua da, pertsona bakoitzak bere konpromiso mailaren arabera onurak lortzeko aukera izan dezan.

Zerbitzua 16 eta 45 urte bitarteko Donostiako biztanle edo langileei zuzenduta dago, kirola eta osasuna zaintzen dituztenei. Gimnasioak hiru kokaleku estrategiko izango ditu (Antiguan, Grosen eta Erdialdean), erabiltzaileei hurbiltasuna eta erosotasuna eskaintzeko. Merkatua hainbat segmentutan banatzen da: erabiltzaile ohikoak, noizbehinkakoak eta ikasleak, guztientzat egokitutako prezio-politikarekin.

Negozioaren diru-sarrera nagusiak hileko harpidetzetatik datoz, baina horiez gain, zerbitzu gehigarriak ere eskainiko dira, hala nola entrenamendu pertsonalak, jarduera bereziak eta produktuen salmenta. Teknologia ezinbestekoa da ereduan, webgune eta aplikazio baten bidez asistentziaren kontrola, ordainketak eta deskontuen kudeaketa egiteko.

Amaitzeko, proiektu honek konpromisoa eta jarraikortasuna balioan jartzen dituen gimnasio eredu bidezko eta iraunkor bat planteatzen du, bezeroei osasun hobea, aurrezpena eta aitortza eskaintzen dizkiena.